



MUTRIKUKO ESKOLA KIROLEKO KONTSEILUA

GURASO EDO/ETA TUTOREEI BIDALTZEKO JAKINARAZPENA

NORK BIDALIA: MUTRIKUKO ESKOLA KIROLEKO KONTSEILUA (Samiela ikastetxeko guraso elkarte, Goizeko Izarra ikastolako Saturran Guraso elkarte, Mutrikuko Institutoko Idurre Guraso elkarte eta Mutrikuko Udaleko Kirol Zerbitzuak):

Kaixo guztioi!!

Datorren 2020-2021 ikasturte berriaren inguruan, honako informazioa partekatu nahi dugu zuekin:

1. Mutrikuko Eskola Kirola Kontseilutik adierazi nahi dizuegu, borondate osoa dugula Mutrikuko Eskola Kirola programa, urtero bezala aurrera eramateko, horretarako COVID 19ari dagozkion neurri bereziak hartu behar baditugu ere.
2. Oraindik ez dakigu ikasturte berrian zer nolako baldintzapean jardun beharko dugun.
3. Datorren ikasturteko Eskola Kiroleko programazioa prestatzen aritu gara azken hilabeteotan, bai begirale, koordinatzaile zein guraso elkarteetako ordezkariok. Hala ere, programazioa guztiz baldintzatuta egongo da, Covid 19aren arabera.
4. Eskola Kiroleko izen ematea iraila 1tik 10era izango da, horretarako inprimakia udal web guneko Eskola Kirola atalean egongo da.

Uda on bat opa dizuegu.

Mutrikuko Eskola Kirola Kontseilua

Mutriku, 2020ko uztailak 20.